

UDALBATZAREN OSOKO BILKURA

2017ko irailaren 28ko ohiko bilkura

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
IKER AGIRRE BARTZENA
IDOIA BLASCO CUEVA
XABIER LOSANTOS OMAR (1)
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA
DIONI ANDRES BLANCO (2)

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN (3)
M^a DOLORES LOZANO MUÑOZ

EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ (4)
ARITZ TELLITU ZABALA

Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Alderdi Popularrak:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

BERTARATU EZ DIRENAK:

EUSKARA-ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI JN.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

- (1) 21:50ean joan zen, 6. puntua eztabaidatzen ari zenean.
- (2) 21:14an heldu zen, 6. puntua eztabaidatzen ari zenean.
- (3) 20:00etan joan zen, 6. puntua eztabaidatzen ari zenean.
- (4) 21:27an joan zen, 6. puntua eztabaidatzen ari zenean.

Leioako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko irailaren hogeita zortziko arratsaldeko zazpiak eta hamazazpi eta minutu izanda, elizate honen osoko bilkura egin da, **M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ andrea alkate-udalburua** izanda eta ezkerrean agertzen diren zinegotziak bertaratuta. Udalbatza egitez eta zuzenbidez osatzen duten kideen legezko gehiengo dira. **Idazkari orokorra CHIARA CAMARÓN PACHECO andrea da.** Osoko bilkurarako deia Alkate-udalburuak egin alde aurretik, Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1. artikuluan, aipatutako Legearen 21.1.c). artikuluan, eta 2013ko ekainaren 27ko udalbatzaren erabakiaren ondoren onartutako eta urte bereko irailaren 23an 182. BAOn argitaratutako Leioako Udaleko Arautegi Organiko eta Herritarren Partaidetzako Arautegi hauetan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aipatutako orduan, lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldiari hasiera eman dio eta, jarraian, ohiko bilkura honen gai zerrendari heldu zaio.

Osoko bilkura hasi aurretik, Alkateak EH-Bildu Leioa Udal-taldeko kideek beraien eserlekuan bandera bat jarri zutela egiaztatu zuen, eta bandera ofiziala ez zenez, UAOren 38. artikuluan ezarritakoaren arabera, kentzea eskatu zuen. EH-Bildu Leioa taldeko zinegotziek onartu eta berehala kendu zuten bandera hori.

I.- ERABAKITZEKOAK

0.- ESNATU LEIOA UDAL TALDEKO ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA

Irailaren 25ean M^a Dolores Lozano Muñoz andreari dagokion zinegotzi egiaztagutunaren sarrera erregistratu zen (10434/17 zk.), Hauteskunde Batzorde Zentralak bidalita, Esnatu Leioa taldeak 2015eko maiatzaren 24ko tokiko hauteskundeetarako aurkeztutako hautagaien zerrendan dagoelako, Begoña Juaristi Linacero andrea ordezkatzeko, uko egun zuelako, eta Xosé Antón Cambeiro Oreiro jaunak eta Angela Verdejo Tarazaga andreak alde zurretik uko eginda.

Irailaren 26an egiaztagutun hori interesdunari entregatu zaio, osoko bilkura honen deialdiarekin eta gai-zerrendarekin batera. Interesdunak bere ondare ondasunen eta lanbide jardueren aitortpena aurkeztu ditu Udalaren Idazkaritza Nagusian, hori guztia apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.7 artikuluan xedatutako ondoreetarako, eta ondoren, Udalbatzaren aurrean, bere zinegotzi karguaren betebeharrak zintzotasunez betetzeko zina edo agindua eman beharko du, eta hori Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko 1984ko ekainaren 19ko Lege Organikoko 108.8 artikulua aplikatuta.

Ondoren, sinatzen duen idazkari nagusiak adierazi zuen Hauteskunde Araubide Orokorriaren Lege Organikoko 108-8 artikuluen arabera, karguaz jabetzeko unean, eta bere karguaren izaera beteaz jabetzeko, hautagai hautetsiak Konstituzioa betetzea zin egin edo agindu beharko duela, 1979ko apirilaren 5eko Errege Dekretuan ezarritakoa.

Xede horretarako, alkate-udalburuak formula irakurri zuen. Honela zioen:

Zure kontzientzia eta oborearen izenean zin egin edo hitzematzen duzu Leioako udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak leial beteko dituzula Erregeari leialtasuna azalduz, eta Konstituzioa bete eta beteaziko duzula Estatuko oinarriazko arau gisa?

M^a Dolores Lozano Muñoz andreak, zin egin zuen eta honakoa gaineratu zuen:

"Herri subiranoaren aurrean zin egiten dut zinegotziaren karguaren betebeharrak leialki beteko ditudala herriak berak prozesu konstituziogileak hasi arte eta funtsezko legeak klase herritarrentzat baliagarriak izan arte, eta ez elite ekonomiko edo politikoenentzat".

Udaleko idazkariak jakinarazi du udal-talde horretako kideek idazki bat aurkeztu dutela, eta Udaleko kide anitzetarako organoetan bere taldeko ordezkariak aldatu direla jakinarazi dutela.

1.- HONAKO AKTA HAUEK ONESTEA:

- 20167-06-20ko ezohiko osoko bilkura.
- 2017-06-29ko ohiko osoko bilkura.
- 2017-07-27ko ohiko osoko bilkura.

Adierazi da aipatutako bilkuren aktak onartzeke daudela, eta Udalbatzari eman zaizkio onar ditzan.

UDALBATZAREN ERABAKIA

Udalbatzak, aho batez, 2017ko uztailaren 20 eta 29an egindako ohiko osoko bilkuraren eta osoko bilkura bereziaren aktak onetsi zituen, horiei buruzko oharrik egin gabe.

4.- MERKATARITZA ERAGIKETETAN BERANKORTASUNAREN AURKA BORROKATZEKO NEURRIEN UZTAILAREN 5EKO 15/2010 LEGEAN XEDATUTAKOA BETEZ EGINDAKO KONTU-HARTZAILTZAKO TXOSTENA ETA DIRUZAINTZAKO TXOSTENAREN LABURPENA, BAI ETA 2017KO BIGARREN HIRUHILEKOARI DAGOZKION EGIKARITZEEN EGOERAK, AURREKONTU EGONKORTASUNAREN BETETZE MAILA ETA GASTU ARAUA.

Merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeke neurriei buruzko uztailaren 5eko 15/2010 Legeak xedatutakoa betez Kontu-hartzailetzak eta Diruzaintzak egindako txostenen berri eman zen.

ORDAINTZEKO EPEAK

Txosten horietan, besteak beste, ondorengoa aipatzen da: **2017ko BIGARREN HIRUHILEKOAN**, 4.464.122,77 euroko **1.658 fakturatatik**, 1.629 epearen barnean ordaindu direla, 4.359.472,90 euro guztira, hau da, % **97,66**.

Epez kanpo ordaindutako 29 fakturatatik (zenbatekoaren % 2,35), ondorengo egoera nabarmendu behar da:

- Faktura horietako 25 epez kanpo jaso ziren, hau da, hiruhilekoan fakturaturako guztiaren % 2,14.

Diruzaintzan dauden hornitzaileei egindako ordainketa likidoetatik, honako datu hauek lortzen dira:

	EPEAN	EPEZ KANPO		
	Epean	Epez kanpo	<i>Epez kanpo ordaindutakoak</i>	<i>Epez kanpo egindakoak</i>
FAKTURA KOPURUA	1.629	29	25	4
Ordaindutako zenbatekoa	4.359.472,90€	10.649,87€	95.483,97€	9.165,90€
Portzentajea	97,66 %	2,35 %	2,14 %	0,21 %

Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazitako lehenengo hiruhilekoari lotuta finkaturako ordainketa orokorraren batez besteko epea (Udala -11,71, Soinu Atadia* -21,72 eta Euskararen Erakundea** -19,91), finantza-tutoretza egikaritzen duen organoa izanik, -11,90 egunekoa da.

Hau da, faktura bat Leioako Udalak xede horretarako gaitutako erregistroan sartzen denetik hura ordaintzen den arte 18 egun bakarrik igarotzen dira.

Gogoan izan behar da, gaur egungo legeriarekin bat, 30 eguneko epea dagoela faktura erregistratzen denetik ikus-onesten den arte, eta beste 30 egun, ikus-onesten denetik ordaintzen den arte.

Leioan, **2017ko bigarren hiruhilekoan**, esan dugun bezala, horretarako 60 eguneko epea izan arren, **18 egunetan** burutu da prozesu osoa.

(*) *Soinu Atadia: 76 faktura ordaindu dira, guztira 48.346,78 euro. % 97,92 epean ordaindu da.*

(**) *Euskararen Erakundea: 68 faktura ordaindu dira, guztira 45.262,13 euro. % 97,27 epean ordaindu da.*

FAKTURAK ESKATZEA

Legeak behartutako arloetan 30 egun baino gehiagoz adostasuna eman gabe jarraitzen duten **fakturak eskatzeari** dagokionez, jakinarazi behar da, Udaleko Kontu-hartzailetzak informazioa eskuratzeko eskaera egin ostean, 2017-06-30en ez dagoela erantzunik jaso gabeko fakturarik.

Kontabilitatean erregistratutako **21 faktura** sailetan osatzeke zeuden (2, zerbitzu orokorretan, 16, giza baliabideetan, 3, kirolean), eta horietatik

- 3 ezeztatu egin dira, ordainketa bidezkoa ez izateagatik.
- 15 dagoeneko ordainduta daude.
- 2 ordaintzeko zeuden baina dagoeneko 33. proposamenean barne hartuta, beraz hemendik gutxira ordainduko dira.
- 1 adostu behar da eta beste bati eskatutako dokumentazioaren zain dago saila, zenbatekoa eta fakturatutako kontzeptuak behar bezala egiaztatzeko.

AURREKONTUA BETEARAZTEA

Udaletik batutako datuak, kapituluaren mailan (arrunta, geldikinik gabe), 2017-06-30en, honako hauek dira:

DIRU SARRERAK

KAPITULUAK	HASIERAKO AURREIKUSPEN A	BEHIN BETIKO AURREIKUSPEN A	AITORTUTAKO ESKUBIDE LIKIDOAK
1.- Zuzeneko zergak	7.813.796,00	7.813.796,00	7.123.108,91
2.- Zeharkako zergak	450.000,00	450.000,00	713.184,46
3.- Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	4.114.842,73	4.114.842,73	2.388.557,13
4.- Transferentzia arruntak	18.067.241,52	18.067.241,52	16.968.173,13
5.- Ondare sarrerak	325.024,90	325.024,90	157.833,77
6.- Inbertsioak besterentzea	827.879,60	827.879,60	0,00
7.- Kapital transferentziak	2.414.793,47	2.414.793,47	357.233,14
8.- Aktibo finantzarioak	0,00	3.017.053,91	0,00
Guztira	34.013.578,22	37.030.632,13	27.708.090,54

GASTUAK

KAPITULUAK	HASIERAKO KREDITUA	BEHIN BETIKO KREDITUA	AIN'TZATETSITAK O OBLIGAZINOAK
1.- Langileria gastuak	10.233.579,34	10.233.579,34	4.337.082,60
2.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak	16.585.480,15	16.585.480,15	7.265.945,86

3.- Gastu finantzarioak	5.000,00	5.000,00	1.248,64
4.- Transferentzia arruntak	3.555.500,89	3.555.500,89	1.258.857,73
5.- Kreditu orokorra eta ustekabeak	85.000,00	85.000,00	0,00
6.- Inbertsio errealak	3.449.017,84	3.449.017,84	283.304,28
7.- Kapital transferentziak	100.000,00	100.000,00	0,00
8.- Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
Guztira	34.013.578,22	34.013.578,22	13.146.439,11

Aurtengo uztailaren 28an eta abuztuaren 23an (hiruhileko informazioa) Bizkaiko Foru Aldundiari bidalitako informazio ekonomikoaren eta aurrekontuko informazioaren bidalketatik ondorioztatzen denez, Leioako Udalak 2017ko bigarren hiruhilekoan lege ezarritako aurrekontuko egonkortasunaren eta gastu arauaren helburuak betetzen ditu.

Osoko bilkura jakitun geratu da.

3.- ESTATUKO AURREKONTU OROKORREN LEGEAREN ORDAINSARI EMENDATZEA.

Alkatearen proposamena irakurrita eta Barne Araubideko Informazio Batzordean hartutako 38. irizpena kontuan hartuz, 2017ko irailaren 19an, ziurtagiri hori espedientean dagoela.

BOZKETA ETA UDALBATZAREN ERABAKIA

Bozkatuta, Udalbatzak, bilkurara bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotziek, EH-Bildu Leioako hiru zinegotziek, Euskal Sozialisten hiru zinegotziek eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotziek emandako aldeko hamasei botoren gehiengoaz, Esmatu Leioa taldeko lau zinegotzien lau abstentzio egonda, **erabaki hau hartu zuen**, Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2) i). artikuluan jasotako eskumenaz baliatuz.

Kontuan hartuz ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 18.Bi. artikulua, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, jasotzen du sektore publikoaren zerbitzura aritzen diren langileen ordainsariei 2016an ezin izango zaien %1eko emendatze globala baino handiagoa aplikatu, 2016ko abenduaren 31n indarrean zudenekiko, homogeneotasun baldintzetan konparazioaren bi aldietarako, bai langileen efektiboek dagokienez, bai haien antzinatearen dagokionez.

Kontuan hartuz, analogiaz, Euskadiko 2017ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen apirilaren 11ko 2/2017 Legearen 19.8. artikuluan ezarritakoa, hau erabakitzen da: "ordainsari osagarriak behin-behinean eta modu iragankorrean % 1 handitu abalko dira, programa bakoitzerako esleitutako efektibo kopuruak eragindako aldaketak, han ezarritako helburuen betetze maila eta aplikatu ondoren banakako emaitza gorabehera. Halaber, lege hau indarrean sartu aurretik hasitako ebaluazio-prozesuak kontuan hartu gabe ulertuko da, betiere finantza-egokia badute eta Gobernu Batzordeak baimendu baditu, dagozkion sektore-esparruetan alde aurretik erabakita".

Halaber, Euskadiko 2017ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartzen dituen apirilaren 11ko 2/2017 Legearen 19.9. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, hau ezartzen duena: "aurreko ataletan ezarritako igoeraren zenbateko orokorra, hala badagokio, osagarri iragankor gisa ordainduko da, 2017 ekitaldirako administrazio publikoaren funtzionarioen oinarriko ordainsariak ezarri bitartean. Oinarriko ordainsari horiek egokitu, Gobernu Batzordeak

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1. artikuluan araututako lanpostu-mailako osagarriaren urteko zenbatekoa eta gainerako ordainsari osagarriak ezarriko ditu".

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Batzordeak, 2017ko irailaren 12ko erabakiaren bidez lanpostu-mailako osagarrien maila bakoitzerako 2017. urterako zenbatekoak ezarri dituela, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1. artikulua xede horietarako ezarritakoa aplikatuz, autonomia-erkidegoetako Gobernuak nabitaez, urtero, lanpostu bakoitzari dagokion lanpostu-mailako osagarria ezarri behar duela ezartzen duena, euskal administrazio publikoen funtzionario guztientzat.

Kontuan hartuta gaur egungo espedientean jasotzen direla eta gaur egungo arau-esparrua, alkate gisa, eta Udaleko Autonomiadun Erakundeetako gobernu-organoen presidente gisa, hau da osoko bilkurari hartzea proposatzen dion

ERABAKIA

LEHENENGOA.- 2017ko ekitaldirako bitzartzea (urtarrilaren 1etik aurrerako eragina izanda) Udaleko funtzionario guztien ordainsariei %1eko emendatze orokorra aplikatzea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zudenekiko, homogeneotasun baldintzetan konparazioaren bi aldietarako, bai langileen efektiboei dagokienez, bai baien antzinate sunari dagokionez, 3/2017 Legeak, 2017. urterako Estatuko Aurrekontuei buruzkoak, 18,2 artikuluan jasotzen duen aukeran oinarri hartuta.

BIGARRENA.- Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, funtzionarioen oinarritzko ordainsariak Estatuko Aurrekontu Orokorren 2017. urterako 3/2017 Legeak ezarritakoak izango dira, Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 93.1. artikulua xede horietarako ezarritakoaren arabera.

HIRUGARRENA: Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1. artikulua arabera, lanpostu-mailako osagarriaren urteko zenbatekoa hau izango da lanpostu bakoitzean, 12 ordainsari kontuan hartuz:

Nivel	Cuantía anual
30	17.036,28
29	15.143,04
28	13.534,32
27	12.019,92
26	10.600,44
25	9.180,84
24	8.612,76
23	7.997,76
22	7.429,80
21	6.862,32
20	6.389,16
19	6.010,32
18	5.631,84
17	5.300,04
16	4.969,08
15	4.637,64
14	4.306,80
13	3.975,24
12	3.644,28
11	3.312,84
10	3.049,80
9	2.830,92
8	2.655,72

LAUGARRENA: Berariazko osagarria eta osagarri pertsonal eta iragankorrek % 1 emendatuko dira, programa bakoitzerako esleitutako efektibo kopuruak eragindako aldaketak, ban ezarritako helburuen betetze maila eta aplikatu ondoren banakako emaitza gorabehera.

BOSGARRENA: *Arduraldi eskusiboko edo partzialeko karguen ordainsariak Udalararen 2002ko martxoaren 4ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez ezarri ziren, oinarri gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren Zerbitzuko Zuzendari batenak hartuta, beraz, 2017ko irailaren 12ko autonomia-erkidegoaren Gobernu Batzordearen Erabakiaren Seigarren xedapenean ezarritako kopuruetara egokitu beharko dira, xede horretarako Bizkaiko Toki Korporazioetako kideen gehieneko ordainsariak eta bertaratzeak onartzen dituen ekainaren 9ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 81/2015 Foru Dekretuan ezarritako mugak gorabehera.*

SEIGARRENA: *Behin-behineko langileen ordainsariak % 1 emendatuko dira 2016ko abenduaren 31n indarrean daudenekiko, antzinatean gisa dagokiena gorabehera, betiere beren ordainsarien kategoriari dagokion zenbateko osoa errespetatuz.*

ZAZPIGARRENA: *2017ko ekitaldirako hitzartzea (urtarrilaren 1etik aurrerako eragina izanda) Udaleko eta bere autonomiadun erakundeen langile lan-kontratudun guztien ordainsariei %1eko emendatze orokorra aplikatzea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zudenekiko, homogeneotasun baldintzetan konparazioaren bi aldietarako, bai langileen efektiboek dagokienez, bai bai antzinateanari dagokionez, 3/2017 Legeak, 2017. urterako Estatuko Aurrekontuei buruzkoak, 18,2 artikuluan jasotzen duen aukeran oinarri hartuta.*

ZORTZIGARRENA.- *Gainerako osagarriak eta zerbitzuagatiko kalte-ordainak berain arautegien arabera izango dira, eta ezin izango dira emendatu %1 baino gehiago banakako zenbatekoak 2016ko abenduaren 31n indarrean daudenekiko.*

Halaber, Erabaki honetan proposatutakotik kanpo geratuko dira aplikatzeko den araudiaren arabera, funtzio publikorako ordainsari-emendatzea aplikatuz eguneratzen ez duen araubidea barne hartzen duten ordainsari-kontzeptuak.

BEDERATZIGARRENA.- *Ebazpen honen berri ematea autonomiadun erakundeen gobernu-organoei, dagozkion legezko ondorioetarako".*

4.- ALKATETZAREN PROPOSAMENA 243/2017. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAN AURKEZTUZ:

Alkatearen proposamena irakurrita eta Barne Araubideko Informazio Batzordean hartutako 39. irizpena kontuan hartuz, 2017ko irailaren 19an, ziurtagiri hori espedientean dagoela.

BOZKETA ETA UDALBATZAREN ERABAKIA

Alkatearen proposamena bozkatuta, Udalbatzak, bilkurara bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotziek, Esnatu Leioa taldeko lau zinegotziek, EH-Bildu Leioako hiru zinegotziek eta Euskal Sozialisten hiru zinegotziek emandako aldeko hamazortzi botoren gehiengoaz, Talde Popularreko bi zinegotzien bi abstentzio egonda, **erabaki hau hartu zuen**, Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2) j). artikuluan jasotako eskumenaz baliatuz.

Toki-korporazio honi Bilboko administrazioarekiko auzien 3. zk.eko epaitegiak 2017ko irailaren 8an egindako jakinarazpena ikusita, non AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A. eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, S.A., UTE PINOSOLO enpresek osatutako aldi baterako enpresa-batasunak 243/2017. prozedura arruntaren bidez, LEIOAKO UDALAREN 2017ko ekainaren 20ko Osoko bilkuraren erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsio bat jarri duela jakinarazten den. Erabaki

borren bidez, behin betiko onartu zuen LEIOA KIROLAK SAU erakundearen administrazio-batzordeak 2011ko urtarrilaren 31n eta otsailaren 11n hartutako erabakiak ofizioz berrikustea eta baliogabetzat hartzea, "Pinosolo kiroldegi berriaren proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun arloa koordinatzea eta obrak gauzatzera" kontratuari dagokionez. Horrez gain, kontratu hori likidatzea ere erabaki zuen.

Kontuan hartuz defentsa juridikoa errekurtsuaren gaian esperientzia duen Kabinete Juridiko batek bere gain hartu behar duela, eta Ricardo Sanz Cebrián eta Asier Ramos Bilbao abokatuek, SANZ & SAIZ Abogados, S.L. enpresakoek, "Pinosolo kiroldegi berriaren proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun arloa koordinatzea eta obrak gauzatzera" kontratuari dagokionez, LEIOA KIROLAK SAU erakundearen Administrazio Batzordeak 2011ko urtarrilaren 31n eta otsailaren 11n hartutako erabakiak ofizioz berrikuzteko eta baliogabetzat hartzeko prozeduran administrazio-bidean esku hartu dutela.

ERABAKI DA

LEHENENGOA: Bilboko administrazioarekiko auzien 3. zk.ko epaitegian 243/2017 Prozedura Arruntaren bidez bideratzen ari den administrazioarekiko auzi-errekurtsuan bertaratzea ezartzea LEIOAKO UDALARI. Errekurtsio hori, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, S.A. eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, S.A., UTE PINOSOLO enpresek osatutako aldi baterako enpresa-batasunak jarri du LEIOAKO UDALAREN 2017ko ekainaren 20ko Osoko bilkuraren erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, behin betiko onartu zuen LEIOA KIROLAK SAU erakundearen administrazio-batzordeak 2011ko urtarrilaren 31n eta otsailaren 11n hartutako erabakiak ofizioz berrikustea eta baliogabetzat hartzea, "Pinosolo kiroldegi berriaren proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasun eta osasun arloa koordinatzea eta obrak gauzatzera" kontratuari dagokionez. Horrez gain, kontratua likidatzea ere erabaki da.

BIGARRENA: Defentsa juridikoa Ricardo Sanz Cebrián eta Asier Ramos Bilbao **abokatuei** eskatzea eta Xabier Nuñez Irueta **Bilboko prokuradorea** izendatzea.

5.- IRAILAREN 22KO BOZERAMAILEEN BATZORDEAN ONARTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA LEIOAKO AUZOKO BATEN HERIOTZARI BURUZ IRAILAREN 19AN IZANDAKO ISTRIPU BATEN ONDORIOZ

Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2017ko irailaren 22an bilduta, erabaki honetan idazten den Adierazpen Instituzionala osoko bilkurara eramatea erabaki zuen, berresteko.

BOZKETA ETA UDALBATZAREN ERABAKIA

Bozketa eginda, osoko bilkurak bertaratutako hogei zinegotzien adostasunez Bozeramaileen Batzordeak alde zuzenetik egindako Adierazpen Instituzional hau **berrestea erabaki zuen.**

Erandioko enpresa batean, joan den asteartean, irailak 19, gertatu zen lan-istripu larrian Xabier Fernández Bilbao leioztarraren heriotza dela-eta, Leioako Udaltzako Bozeramaileen Batzordeak honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau onartu du:

Tras la muerte de Xabier Fernández Bilbao, vecino de Leioa, en accidente laboral el pasado martes 19 de septiembre de 2017 en una empresa de la vecina localidad de Erandio, la Junta de Portavoces de la Corporación del Ayuntamiento de Leioa ha aprobado la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL:

LEHENIK

Atsekabez betetzen gaitu Xabier Fernandez Bilbao leioaztarraren lan-istripuaren ondoriozko heriotzak.

BIGARRENIK

Gure doluminak eta solidaritatea adierazi nahi dizkiegu hildakoaren familia, lagun eta lankideei hain une latzetan.

HIRUGARRENIK

Familiari gure lankidetzak osoa eskaintzen diogu Leioako Udalak, bere eskumenen barruan, lagun dezakeen guztirako.

LAUGARRENIK

Gure kezka eta konpromisoa erakutsi nahi ditugu, gainerako Administrazio eta Erakundeekin bat, lan segurtasunaren esparruaren barruan eta bakoitzari dagokion eskumenen arabera, hain tamalgarriak diren istripuak, gerta berri dena kasu, berriro gerta ez daitezen lortzen saiatur.

Leioan, 2017ko irailaren 25ean.

PRIMERO

Lamentamos profundamente la muerte de nuestro vecino Xabier Fernández Bilbao mientras desempeñaba su trabajo en una empresa de Erandio.

SEGUNDO

Mostramos nuestras condolencias y solidaridad a la familia del fallecido y a sus compañeros y compañeras de trabajo en estos momentos de dolor.

TERCERO

Nos ponemos a disposición de la familia en todo aquello en lo que este Ayuntamiento de Leioa, en el ámbito de sus competencias, pudiera ayudar.

CUARTO

Mostrar nuestra preocupación y nuestro compromiso para trabajar junto con el resto de Administraciones e Instituciones para, en el ámbito de la seguridad laboral y cada una en aquello que le corresponda, tratar de conseguir que accidentes tan lamentables como el que acaba de suceder, no puedan repetirse.

En Leioa, a 25 de septiembre de 2017.

6.- EH-BILDU LEIOA UDAL TALDEAK KATALUNIARI BURUZ AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA, GAI ZERRENDAN SARTU AURRETIK BERRETS DADIN (UEO-REN 41. ART.):

EH-Bildu Leioa udal taldeak, idazkia aurkeztu zuen 2017ko irailaren 21ean, 10225/17 sarrera-erregistroko zenbakiarekin, osoko bilkurara bidaltzeko. Edukia ikusita, Alkate andrean proposamen gisa sartu du osoko bilkuraren gai-zerrendan UEoren 41. artikuluan ezarritakoaren arabera. Idazkariak ahoz jakinarazi du dagokion informazio-batzordeak irizpenik eman ez duenez eta alkateak eta aurkeztu duen udal taldeak premiazkoztat jo dutenez, berretsi egin behar dela gehiengo soilez gai-zerrenda sartzeari, aipatutako UEoren artikulua arabera.

Halaber, adierazten da Euskal Sozialisten udal taldeak zuzenketa bat aurkeztu duela, eta kasu horretan, proposamena gai-zerrendan sartzeari berretsi ondoren, zuzenketa osoa bozkatu behar dela lehendabizi. Horrela, puntua onartzen bada amaitutzat emango da; bestela, bozkatu egingo da, UEoren 47. artikulua arabera.

Azkenik, besteak beste arautegi organikoaren 5.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, idazkariak jakinarazten du akordio-proposamenen zenbait edukiren legezkotasunarekin zalantzak daudela, eta hala nola Konstituzio Auzitegiak emandako ebazpen batzuk kontuan hartu ditu,

beraz, horri buruzko erabakiak hartzeko botoa ematean alderdi horiek kontuan hartu beharko dira.

Eztabaida eta dagozkion bozketak errazteko, eta kontuan hartuz gai-zerrendako 6. eta 7. puntuak lotuta zeudela, Kataluniako egoerari buruz zenbait udal taldek aurkeztutako proposamenak zirelako, eztabaida bakarra egitea eta bozketak honela egieta erabaki zuten batzarkideek:

1. EH-Bildu Leioak eta Euzko Abertzaleak aurkeztutako proposamenak Gai Zerrendan sartzea bozkatzea.
- 2.- Euskal Sozialisten taldeak aurkeztutako zuzenketa bozkatzea, eta ez bada onartzen:
- 3.- EH-Bildu Leioa taldeak aurkeztutako proposamena bozkatzea.
- 4.- Euzko Abertzaleak aurkeztutako proposamena bozkatzea.

EH-BILDU LEIOAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA **GAI ZERRENDAN SARTZEA BOZKATZEA**

Bozkatuta, Udalbatzak Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotziak emandako aldeko hamabost botorekin, Esmatu Leioa taldeko lau zinegotziak, EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotziak eta Euskal Sozialisten hiru zinegotziak eta Leioako Talde Popularrak bi zinegotziak emandako kontrako bost botorekin, **Udaleko Antolaketa Erregelamenduaren 41. artikulua arabera, EH-Bildu Leioa Udal Taldeak aurkeztutako proposamena Osoko Bilkuraren Gai-zerrendan sartzea erabaki zuen, eztabaidatzeko eta bozkatzeko.**

Hemen daude EH-Bildu Leioak eta Euskal Sozialisten Taldeak aurkeztutako zuzenketa:

EH Bildu Leioa TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA (10225/17)

KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIOAREKIN BAT.

Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari atea irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Leioako Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.

2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernuak, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.

3.-Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.

4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoek alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuko presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz..

EUSKAL SOZIALISTEN UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO ZUZENKETA (10505/17)

LEIOAko Udalbatzaren ustez, azken egunetako gertaerak direla eta, gogoeta kolektibo bat egitera behartzen gaituzte. Gertaera horiek inork ez ditu nahi, eta inork ez du erantzukizunik hartu horren gainean.

Kataluniaren eta gainerako Espainiaren arteko harremana 2010. urtetik konpondua ez dagoen gaia da, Konstituzio Auzitegiak katalanek 2006. urtean bozkatutako Estatutua aldatu zuenean.

PPren ausarkeriazko jarrera dela eta ezin izan zen lortu arrazoizko akordio bat.

Kataluniako eta Espainiako gobernuak hortik aurrera ez dira gai izan elkarrizketa serio bat ezartzeko, auzia bideratzeko.

Kataluniako gobernuak eta laguntzen dion gehiengo independentistak alde bakarrekoa eta legez kontrakoa den bide bat aukeratu dute. Gogoratu behar dugu hemen dagoeneko, ordena honetan, Parlament-eko arautegia, aurka egiteko eskubideak, Kataluniako Estatut-a eta Espainiako Konstituzioa urratu direla.

Alde batekoa eta legez kontrakoa den bide horrek porrotean amaituko du, eta Estatuko agintariak erreferenduma egitea eragotziko du, Kataluniako Parlament-eko abokatuek, Kataluniako Consell de Garanties Estatutàries-ek, Konstituzio Auzitegiak eta Europako Batzordeko Veneziako Batzordeak legez kontrakotzat hartu dutelako.

Beste batzuentzat hain larria ez den "trenen talkaren" aurkakoak gara, eta beste bide bat defendatzen jarraitzen dugu: elkarrizketaren, negoziazioaren eta itunaren bidea. Baina zoritxarrez ez dute kontuan hartu bide hori, eta ohartarazi genuen tren-talka heldu da.

Elkarrizketa politikoa bide bakarra da irteerarik gabeko kale horretatik irteteko, Kataluniak autogobernua eta finantzazioan irabazi dezan, eta Espainia Estatu federala bihur dadin. Proposatzen dugun itunaren ondorioz herritarrek bozkatu beharko luketen konstituzio berrikuntza federal bat egin beharko litzateke. Bartzelonako adierazpenean gure proposamenaren funtsezko elementuak jasotzen dira, eta positibotzat jotzen dugu Diputatuen Kongresuan bultzatutakoa, gai horiek aztertzeko parlamentuko Batzorde bat sortzea hain zuzen.

Irtenbide demokratiko bat aurkitzen laguntzeko konpromisoa hartzen dugu, aipatutako arazoak kontuan hartzen dituen, eta erakunde eta alderdi guztiei bide horretatik dituzten ekarpen positiboak egitea eskatzen diet.

Lasaitasuna eskatzen dugu. Erakunde demokratikoei irtenbide bat bilatu behar diote bizi dugun gatazkarako, eta ez dute herritarren esku utzi behar arazoa konpontzea. Katalanek beraien eskubideak bermatuta dituzte, eta Kataluniak, herrialde gisa, bere autonomia. Alde bateko eta legez kontrako bide batek bakarrik jar gaitezke arriskuan. Kataluniako eta Espainiako gobernuen erantzukizuna eskatzen dugu, elkarrizketa berehala hasteko, konponbidea aurkitzen bide bakarra baita.

Ondorioz, LEIOAKO EUSKAL SOZIALISTEN UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIAK BIHURTU DIZKIO OSOKO BILKURARI, EZTABAIDATU ETA ONETS DITZAN:

- 1.- Kataluniako eta Espainiako gobernuari guztiok hondamendira eramaten gaituen jarrera gelditzea eskatzea. Kataluniaren eta gainerako Espainiaren arteko harremanaren arazoaren irtenbidea ez da auzitegietatik etorriko, baina legezketasuna errespetatzea denoi dagokigu. Estatuak legez kontrako erreferendum bat egitea eragozteak ezin du ekarri inola ere eztabaida politikoa eta Konstituzioan ezarritako eskubidea mugatzea.
- 2.- Kataluniako gobernuari eskatzea legezko kontrako erreferendum bat antolatzeari uko egitea, eta uko egiteko horrek, elkarrizketa eta negoziazio prozesu bat berehala hasteko aukera ematea. Hor, Kataluniako eta Espainiako indar politiko guztiek parte har dezakete.
- 3.- Espainiako gobernuari eskatzea erantzun politiko bat eman diezaiola arazo politiko bati, eta Estatuak arazo politiko horri emandako erantzun bakarra botere judizialarena ez izatea. Puigdemont eta Rajoy presidentek duela hilabete batzuk egin behar luketena egin behar dute orain: hitz egin.

EUSKO SOZIALISTEN UDAL TALDEAK
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA

Bozkatuta Udaltzako **Euskal Sozialisten taldeak aurkeztutako zuzenketa ukatzea erabaki zuen**, bilkuran egondako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotziek, Euzko Leioa taldeko hiru zinegotziek, EH-Bildu Leioa taldeko bi zinegotziek eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotziek emandako kontrako hamabost botorekin, Euskal Sozialisten hiru zinegotziek emandako aldeko hiru botorekin, eta Euzko Abertzaleak taldeko Xabier Losantos Omar jaunaren, Euzko Leioa taldeko Desireé Ortiz de Urbina Marín andrearen eta EH-Bildu Leioa taldeko Naiara Goirieta Zilloniz andrearen hiru abstentziorekin (Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100. artikulua, eta Udal Erregelamendu Organikoaren 53.3. artikulua aplikatuz, gai hau eztabaidatzen hasita bilkuran ez zirelako egon, eta bozketan ere ez zutelako parte hartu).

EH-BILDU LEIOA UDAL TALDEAK **AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAREN BOZKETA**

Bozkatuta Udalbatzak **Euskal Sozialisten taldeak aurkeztutako proposamena ukatzea erabaki zuen**, bilkuran egondako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotziek eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotziek emandako hamahiru botorekin, EH-Bildu Leioa taldeko bi zinegotziek emandako aldeko bi botorekin, eta Esnatu Leioa taldeko hiru zinegotzien eta Euzko Abertzaleak taldeko Xabier Losantos Omar jaunaren, Esnatu Leioa taldeko Desirée Ortiz de Urbina Marín andrearen eta EH-Bildu Leioa taldeko Naiara Goirieta Zilloniz andrearen sei abstentziorekin (Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100. artikulua, eta Udal Erregelamendu Organikoaren 53.3. artikulua aplikatuz, gai hau eztabaidatzen hasita bilkuran ez zirelako egon, eta bozketan ere ez zutelako parte hartu).

7.- EUZKO ABERTZALEAK UDAL TALDEAK KATALUNIARI BURUZ **AURKEZTUAKO PROPOSAMENA, GAI ZERRENDAN SARTU AURRETIK** **BERRETS DADIN (UEOREN 41. ART.):**

Euzko Abertzaleak udal taldeak, idazkia aurkeztu zuen 2017ko irailaren 25ean, 10436/17 sarrera-erregistroko zenbakiarekin, osoko bilkurara bidaltzeko. Edukia ikusita, Alkate andrea proposamen gisa sartu du osoko bilkuraren gai-zerrendan UEoren 41. artikuluan ezarritakoaren arabera. Idazkariak ahoz jakinarazi du dagokion informazio-batzordeak irizpenik eman ez duenez eta alkateak eta aurkeztu duen udal taldeak premiazkozat jo dutenez, berretsi egin behar dela gehiengo soilez gai-zerrenda sartzeara, aipatutako UEoren artikulua arabera.

Eztabaida eta dagozkion bozketak errazteko, eta kontuan hartuz gai-zerrendako 6. eta 7. puntuak lotuta zeudela, Kataluniako egoerari buruz zenbait udal taldek aurkeztutako proposamenak zirelako, eztabaida bakarra egitea eta bozketak honela egieta erabaki zuten batzarkideek:

1. EH-Bildu Leioak eta Euzko Abertzaleak aurkeztutako proposamenak Gai Zerrendan sartzeara bozkatzea.
- 2.- Euskal Sozialisten taldeak aurkeztutako zuzenketa bozkatzea, eta ez bada onartzen:
- 3.- EH-Bildu Leioa taldeak aurkeztutako proposamena bozkatzea.
- 4.- Euzko Abertzaleak aurkeztutako proposamena bozkatzea.

Proposamen hau gai-zerrendan sartzeko bozketak aurreko puntuan egin zen arren, EH-Bildu Leioa taldeak aurkeztutako proposamena gai-zerrenda sartzeko bozketarekin batera, haren emaitza utziko dugu orain:

EUZKO ABERTZALEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA **GAI ZERRENDAN SARTZEKO BOZKETA**

Bozkatuta, Udalbatzak Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotziek emandako aldeko hamabost botorekin, Esnatu Leioa taldeko lau zinegotziek, EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotziek eta Euskal Sozialisten hiru zinegotziek eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotziek

emandako kontrako bost botorekin, **Udaleko Antolaketa Erregelamenduaren 41. artikulua**ren arabera, **Euzko Abertzaleak Udal Taldeak aurkeztutako proposamena Osoko Bilkuraren Gai-zerrendan sartzea erabaki zuen, eztabaidatzeko eta bozkatzeko.**

Orain, Euzko Abertzaleak Taldeak aurkeztutako proposamena transkribatuko dugu:

EUZKO ABERTZALEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

KATALUNIAKO EGOERA POLITIKOA DELA-ETA, EUZKO ABERTZALEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

Leioan, 2017ko irailaren 25ean.

- 1.-LeioaKo Udalak bere kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian eragin den esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxilotetak egin baitiren Generalitateko instalazioetan eta beren arduradun legitimoen.
- 2.-LeioaKo Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.
- 3.- LeioaKo Udalak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Kataluniako herriari eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa - Espainiako Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.
- 4.- LeioaKo Udalak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbidetzera eta bere erabakiak errespetatzera.

EUZKO ABERTZALEAK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAREN BOZKETA

Bozkatuta Udaltzako **Euzko Abertzaleak udal taldeak aurkeztutako proposamena onartzea erabaki zuen**, bilkuran egondako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotziek eta Euzko Leioa hiru zinegotziek emandako aldeko hamaika botorekin, Euzko Sozialisten hiru zinegotziek eta Leioa Talde Popularreko bi zinegotziek emandako kontrako bost botorekin, eta EH-Bildu Leioa taldeko bi zinegotzietan eta Euzko Abertzaleak taldeko Xabier Losantos Omar jaunaren, Euzko Leioa taldeko Desireé Ortiz de Urbina Marín andrearen eta EH-Bildu Leioa taldeko Naiara Goiriena Zilloniz andrearen bost abstentziorekin (Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100. artikulua, eta Udal Erregelamendu Organikoaren 53.3. artikulua aplikatuz, gai hau eztabaidatzen hasita bilkuran ez zirelako egon, eta bozketan ere ez zutelako parte hartu).

8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2017-07-18TIK 2017-02-20RA:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan xedatutakoari erreparatuz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak eta Toki Korporazioen

Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Araudiaren 42. artikulua (azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onartua) emandako idazketan, osoko bilkurako espedientean honako hau jasota dago, azter dadin: idazpuruan aipatutako epean alkatetzak emandako dekretuen kopia, dagokion tokian ondoren artxibatzeke aukera alde batera utzi gabe.

Osoko bilkura **jakitun** geratu da.

9.- PRESAZKO MOZIOAK

Idatz-zati honetan ez da premiazko moziarik aurkeztu.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Osoko bilkura amaitu baino lehen, Alkatetza-Udalburutzak minutu bat isilik egoteko eskatu zien bilkurara bertaratutako guztiei, Sestaoko auzokoa den Noelia Noemíren omenez, genero-indarkeriazko ustezko delitu baten azken biktima izan dena, gertaera horiek gaitzesteko.

Eta hogeita hiru ordu eta hamabost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak egintza amaitutzat jo du eta Idazkaritzari dagokion akta idaztea agindu zaio. Adostutako baldintzetan onartu da eta guztia nik neuk, idazkari nagusia naizen honek, ziurtatzen dut.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARI NAGUSIA